

Literatura →

Erabat harilkatu gabe

Iratxe Esnaola

Eneko Aizpuruak (Lazkao, 1976) argitaratutako lehen eleberririk Roman Polanskiaren film ezagunari egiten dio keinu liburuaren atarian, esaldi hau txertatuz: *Forget it, Jake. It's Chinatown*. Erreferentziak, omenaldi fedean jarria izan arren, konparazioaren argia pizten du nobelaren irakurketa amaitzean, bere kaltean. Lanak osagai franko badu, baina ez daude elkar eragiteko behar bezala nahasiak. Lehenengo pertsonan aurkezten zaigu Mikel Egileor kazetaria, erregulazio espediente bat dela eta sei hilabeterako egunkaririk kanpo geratu dena. Egun berean tramari hasiera ematen dion gertaera jazo da: Lazkao herriko jailetan erailketa bat jendearen begi bistan. Kasua argitzeko lanean jarriko duen dei bat jaso du protagonista. Hortik aurrera, ikerlearen behar lukete izan Mikel Egileorrenak, baina alderriak dabilen tipo bat aurkezten zaigu, dena eskura iristen zaiona: kontratazioa, informazioa, aztarnak. Tamalez, ez da sinesgarriegi eta protagonistak idazleak nahi zue-

na lortu duela pentsa daiteke; eleberririk aurrera jarrai zezan behar zena, alegia. Liburuko onena elkarrizketak dira, korapilorik gabe tramari aurrera egiten uzten diotenak. Ataskatuta geratzeko arriskurik ez da. Arintasanuk bere alde du hori.

Esan dugu gaiak txertatu txertatzen dituela eta ez gutxi. Nerabe atzerritarrekiko eta etorkinekiko herritarren pertzepzioa da nagusia. Aurreiritziz eta arrazakeriaz kutsatutako jendartearen erakusten du egileak, errugabetasun presuntzioarekin ahaztuta, hedabideek erabili hizkerak xaxatuak. Erantzunik gabeko arazo errenkada atera genezake matzatik: paperik gabeko adingabe etorkinek zer egin, hezkuntza proiektuak gauzatzearren zailtasunak konprenitu, baliabide eskasien arazoa errekonozitu. Bestalde, Marokoko zerbitzu sekretuak, infiltratuak, proiektu ilegalak eta naturaren aurkako erasoak, euskal enpresarien ustelkeria eta erakunde publikoen funtzionamendu eskasa, besteren artean, ez dira falta. Esan bezala, osagaiak ez dira eskasak. Gaiak badute interesa. Pena da,

hortaz, soka mutur solteak bezaleda hedatzen direla ikustea, beti elkartuko diren esperoan eta inoiz erabat harilkatu gabe. Bestalde, protagonista dezente estereotipoz osatu da eta ondorioetara sinemenen bitartez iristen da, ikerkuntzak ekarritako aztarnen bidez bainoago.

Esaldi motzek di-da batean irakurtzeko modukoak egiten dute



'ERRAUTS'

- **Idazlea:** Eneko Aizpuru.
- **Argitaletxea:** Erein.
- **Urtea:** 2011.

eleberririk. Egia da erritmo erreplikakorra duela, baina alde erantzira, ez da arrazoibide luzean buxatzen. Aukeran, gehiegizko deskribatzen ditu Donostiako zenbait taberna eta txoko ezagun eta autoan egindako mugimenduen deskribapenak ere askotxo dira. Liburu bat aipatzen da, protagonista irakurtzen ari dena. Rodolfo Walshen *Sarraski operazioa* (1957), hain zuzen. Fikzio-kazetaritza bezala ezagutzen den generoaren aitzindaritzat hartu izan den eleberririk horretan, errealtatean gertatu zen kasu baten kontakizun fikziozkoa egiten da. Buenos Airesko probintzian fusilatutako gizon kuadrilla batetik bizi irautea lortu zuten biktimak izan zen eleberririk da berau. Aizpuruak testigantza-narrazioa eta kazetariaren irudia omendu nahi izan dituela pentsarazi dit horrek, eta iruditzen zait ilusio handiz idatzi dituela orriok, emaitza berebizikoa ez izan arren. Nolanahi dela, eskertzen zaio heroikotasunik gabe amaitu izana kontakizuna. Errealista da protagonista honek faltsukeria eta ustelkeria de-
sestatzeko aukerarik ez izatea.

HITZAK FOSIL



'HITZAK FOSIL'

- **Egilea:** Juan Inazio Hartsuaga.
- **Argitaletxea:** Hiria.


Hitzen «ezkupekoak» bilatzen ahalegindu da Juan Inazio Hartsuaga saikera labur hone-tan, «euskal fonetikaren errespertuaren baitan» jokatu betiere, «baina fonetikaz haratago Historia, Arkeologia, Mitologia eta Antropologiaren laguntza» baliatuz, «hitzetatik argibide mamitsuak erazten saiatzeko».



'SANTA AGEDA KOPLAK ZESTOAN'

- **Egilea:** Xabier Unanue.
- **Argitaratzailea:** Gipuzkoako Foru Aldundia (Auspoa saila).

Zestoan Santa Agenda bezperako Santaeskean 1992tik 2012ra arte kantatutako koplak hautaketa bat jaso du liburuan Xabier Unanuek. Manuel Olalzoa *Uztapide II*, Nikolas Zendoia, Jesus Iribar *Olalde*, Oskar Alberdi, Garikoitz Lopetegui eta Millan Telleria dira koplariak.



'KARMEL', 276. ZENBAKIA

- **Argitaratzailea:** Euskal Herriko Karmeldarrak.

Luis Baraiazarrak A. Miguel Mariaren oropenez idatzitako gorazarrea, Ana Urkizak Bankoako euskarari buruzko hausnarketa saioez idatzitako kronika, Iñaki Martiartuk Bakioko harrizko ondareaz idatzitako erreportajea eta Jacinto Iturbek zientziako berbez idatzitako saioa aurkituko ditu, besteak beste, irakurleak *Karmel* berrian.

↓ Haur eta gazte literatura

Azalpen nahasgarriak

Igerabidek eta Martinez Orozok pedagogia eta literatura elkartu dituzte, haurrak nola sortzen diren azaltzeko.

Berez, gaia azalpen errazkoa da: «Amaren sabelean dagoen umekia aitaren eta amaren haziak bertan elkartuz sortzen da. Bederatzi hilabetez amaren umetokian garatu ondoren, jai egiten da». Baina, tamalez, sexualitatearen espiritualitatearekin gurutzatzen den guztietan, azalpen sinpleak itzulginguru nahasgarri bihurtzen ditugu.

Liburuak testu justua du, poesiaren tankeran idatzitako dozena erdi lerro hautsi orrialdeko.



'TANTA BATEN HISTORIA'

- **Idazlea:** Juan Krux Igerabide.
- **Ilustratzailea:** Lorena Martinez Orozko.
- **Argitaletxea:** Ttartalo.

Marrazkiak oso adierazkorrik dira, haurrentzako dibulgazio liburu bati dagozkionak.

Testua ere simple bezain ederra da —Igerabideren ofizio handia—, baina mezua oso nahasgarria gertatzen da. Adibide gisara, kontzepzioari dagokion azalpena ekarriko dugu hona:

Kontzepzioaren gakoak hiru direla azaltzen zaigu. Lehen gakoak «gizakien barru-barruan, arnasa sortzen den lekuan» dagoen tanta «ikusezin» bat da. Bigarrena tantaren jatorria da: «hasieran, tanta ilargian zegoen» esaten zaigu; alegia, tanta berez ilargiaren mallo bat dela, gu guztiok ilargiaren seme-alabak garelako iradokiz. Eta, hirugarrenik, aitek eta amak musu ematean tanta ilargitik erori eta ezpain elkarre-ta profitatuz amaren ahotik sartu eta «[tanta] sabelera heldu zitzaion». Beraz, ilargiak musu baten aitzakian amaren sabelera isurtzen duen tanta baten seme-alabak omen gara... Poetikoa bai, baina pedagogikoa ez dut uste denik, ezta? ■ **IMANOL MERCERO**

Indianoak Mendebal Urruneko komikian

Komiki honen aipua idazten ari nintzela, izenburu sorta ederra ateratu zait. Kasu egin izan bano Muro gidolariaren sarerako azalpenari, XIX. mendean itsasoz bestalderako joatea erabaki zuten euskaldun emigranteak nabarmenduko nituen, eta izenburutzat *Euskaldunak Ameriketara* jarri, baina orokorregia iruditu zitzaidan, kontakizunaren mamia ezin isla nezakeen esamodetopiko horrekin. Izenburu sentsazionalista bat ere otu zitzaidan, *XXI. mendeko independentisten abenturak* moduan



'INDIANOAK'

- **Gidoigilea:** Gregorio Muro.
- **Marrazkilaria:** Francisco Fructuoso.
- **Itzultzailea:** HABA eta Mixel Murua.
- **Argitaletxea:** Alberdania, Erein, Igela.

idatz zitekeena, profitatuz istorioaren pasarte batean euskaldunak eta eskoziarrak norgehiagoka aritzen direla urre bilatzailen kanpamentuetan. Baina hori ere partziala eta nahasgarria zen, datuak gurutzatu egingo ziren, *Habekomik*-ek 80ko hamarkadan kaleratu zuen liburu baten berrargitalpena izanik eta XIX. mendean kokatutako istorio bat delarik. «Eta *Urre bilatzaileak Mendebalde Urrunean*?», pentsatu nuen hurrena. Baina ez, kontu horrek istorioaren zati bat islatuko zuela iruditu zitzaidan, eta ez osotasuna, behizainak (bakeroak) edota itsasoko bidaiaren pasarteak kanpora geldituko zirela... Azkenean, izenburuak liburuak dituen 56 orrialde mamitsuak islatu behar zituen, euskaldunak Ameriketara urre bila joan eta nola abentura eta ogibide ugari pasa behar izan zituzten, nola bertako biztanleekin topatu ziren... indioak eta indianoak... bakoero istorio prototipiko baten... Mendebal Urrunean... ■ **I.M.**